



Tolosako Udala

TOLOSAKO UDALEKO INFORMATIKARI BAT BEHIN-BEHINEKO IZAERAZ BETETZEKO
ONARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

LEHENA. Deialdiaren helburua.

Oinarri hauen helburua da informatikako teknikari baten hautaketa jardunbide bat garatzea eta lan-poltsa bat sortzea, ordezkapenak egiteko.

Lanpostuak ezaugarri hauek ditu:

- Eskala: Administrazio Berezia
- Azpieskala: Erdi mailako teknikaria
- Sailkapen-taldea: A2
- Titulazioa: Informatikan edo telekomunikazioetan gradua edo baliokidea.
- Hizkuntza-eskakizuna: HAEEko C2. HE, derrigorrezkoa
- Ordainsariak: A2 taldea; lanpostu-mailako osagarria, 22; Berariazko osagarria, 18.255,16 euro urtean.
- Lan-harremana: funtzionarioa

Eguneko lanaldia izango da Tolosako Udalak ezartzen duena, beti ere zerbitzuaren izaera eta beharrian espezifikoak kontuan izanda.

BIGARRENA. Lanpostuaren eginkizunak.

Lanpostuak honako eginkizun hauek guztiak izango ditu:

1.- INFORMATIKA ETA IKT:

- Udalaren eta IZFE Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen, edo beste administrazio batzuen, arteko solaskidetza teknikoko lanak egitea.
- Sailen premia teknologikoak atzematea eta behar diren proposamenak egitea.
- Sistemak behar bezala funtzionatzen dutela kontrolatu eta ikuskatzea, eta haien kontrol-elementuak egiaztatzea, hala nola sarea, zerbitzariak, babeskopiak eta abar.
- Udal-sistemak, wifi publikoko sistema eta herritarrei informazioa emateko sistema kontrolatu eta mantentzeko lanak egitea.
- Erakundearen sistema teknologikoen egoeraren sei hilean behingo auditoretzak planifikatu eta egitea, eta aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak proposatzea.

2.- UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

- Bere funtzio-eremuko espedienteetan proposamen teknikoen orriak egitea, eta balioespen-txostenak egitea horietan oinarritutako lizitazioetan.
- Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuez arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela bermatzea, eta horien ondoriozko fakturak egitea.
- Teknikari gisa parte hartzea, horretarako eskatuz gero, eta bere eskumeneko arloei



Tolosako Udala

dagokienez, udal informazio-batzordeetan.

3.- BESTELAKOAK:

- Mendekoek gauzatu beharreko zereginak planifikatu, antolatu, ikuskatu eta koordinatzea, zerbitzuaren beharren arabera.
- Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.

4.- EGINKIZUN KOMUNAK:

- Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
- Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
- Unitatera/arlori atxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
- Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
- Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
- Bere kategoriari dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldezturik aurretik horretarako jarraibideak jasota

HIRUGARRENA.- Izangaien betebeharrak

Hautaketa-prozesuan onartua izateko baldintza hauek bete behar dira:

a) Nazionalitate espainiarra edukitzea, edo beste edozein estatutakoa, baldin eta Europar Batasunak formalizatutako nazioarteko itunen baten arabera aplikaziozkoa bada langileen joan-etorri askea, Europako Erkidegoa Eratzeko Itunean zehaztutako eran.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta Zuzenbidearen arabera banatuta ez badaude eta ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

b) 16 urte beteta edukitzea.

c) Informatikako eta telekomunikazioetako gradua edo baliokidea edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea.

d) C2 hizkuntza-eskakizuna (HE) egiaztatzen duen agiria edukitzea. Izangairik ez balego, C1 mailako izangaik parte hartu ahal izango dute ere.

e) Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea, eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea. Baldintza hori dagokion unean egiaztatu beharko du lanpostu batean hastera deitutako izangaia, azterketa medikua eginda udalak horretarako ezarria duen zerbitzuan.



Tolosako Udala

f) Diziiplina-espeditente bitartez inongo Administrazio Publikoetako zerbitzutik baztertuta edo kanporatuta ez egotea, eta desgaituntzarik ez izatea (erabatekoa zein berezia) enplegu edo kargu publikoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, estatu horretan ez edukitzea desgaituntzarik edo antzeko egoerarik, ezta estatu hartan Funtzio Publikoan jardutea galaraziko liokeen diziiplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ere.

g) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auziren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

Izangaiek beteta eduki behar dituzte baldintza horiek deialdian onartuak izateko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta lanpostuaz jabetu arte bete beharko dituzte.

Halaber, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen baldintzak, izangai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berarekin hitz egin eta gero, eta hautaketa-prozesura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

LAUGARRENA.- Epaimahai kalifikatzailearen osaera

- Lehendakaria: Giza Baliabideetako arduraduna edo berak izendatutako ordezkoa

- Mahaiko kideak:

- Tolosako Udaleko informatikako arduraduna
- Beste udaleko informatikako bi teknikari

- Idazkaria: Giza Baliabideetako administrari bat edo berak izendatutako ordezkoa

Epaimahaiaren jarduketa-prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan zehaztutakora egokituko da beti.

Enplegu Zerbitzu Publikoek aurrez hautatutako izangaiek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako baldintzak gertatzen direnean.

Epaimahaiaren ardura izango da ariketen garapenean sor daitezkeen gorabeherak aztertzea, egiaztatzea eta balioestea, eta egokitze jotzen dituen erabaki arrazoituak hartzea.

BOSGARRENA.- Izangaia aukeratzea

Lanpostua betetzea premiazkoa denez, Enplegu Zerbitzu Publikoaren bidez (LANBIDE), hautagaiak eskatu eta dagokion hautaketa-proba egingo da.

Beraz, zerbitzu horrek hautatutako izangaien artean egingo da aukeraketa.



Tolosako Udala

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak Lanbideren datu basean agertu beharko dute (hautagaiaren Curriculum Vitae), kontuan hartu ahal izateko.

SEIGARRENA.- Oposizio-faseko proba

Proba hau nahitaezkoa eta kanporatzailea izango da.

Lanpostuari atxikitako eginkizunen inguruan ariketa praktiko bat edo gehiago egingo dira, Epaimahaiak erabakitzen duenaren arabera eta 0 puntutik 20 puntura baloratuko da; beraz, 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak hautaketa-prozesutik kanporatuak izango dira.

ZAZPIGARRENA.- Jakinarazpenak

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Tolosako Udalaren web orriaren eta iragarki-taularen bitartez egingo dira.

ZORTZIGARRENA.- Emaizak argitaratzea eta berrikustea

Probaren emaitzak argitaratu ondoren, gutxienez 3 egun balioduneko epea ezarriko da azterketak berrikusteko, eta, ondoren, erreklamazioak egiteko 3 egun balioduneko epea, azterketa berrikusteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio epaimahaiburuari, Herriarren Arretarako Bulegoan (UDATE), edo epaimahaiko idazkariari, ofizialki erregistratu ditzan. Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikoko Orokorrean ere aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko emaitzak behin betikotzat joko dira automatikoki. Proba amaitu ondoren, epaimahaiak hura gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du, lortutako guztizko puntuazioaren arabera.

BEDERATZIGARRENA.- Dokumentazioa aurkeztea

Hautagaiek Enplegu Zerbitzu Publikoan (LANBIDEN) aurkeztu beharko dituzte laugarren oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzen duten dokumentuak.

HAMARGARRENA.- Izendapena

Alkatetzak kontratatuko du Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako izangaia, laugarren oinarrian aipatzen diren baldintzak betetzen dituela ziurtatu ondoren eta beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta gero.

HAMAIKAGARRENA.- Lan-poltsa eratzea

Oposizio-faseko proba gainditzeko izango diren hautagaiekin lan-poltsa bat osatuko da, lortutako azkeneko puntuazioaren arabera hurrenkeran (puntu gehien lortu duenetik hasita).



Tolosako Udala

Lan-poltsa hori Udalak erabili ahal izango du lanpostu berean edo antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko.

HAMABIGARRENA.- Gertakariak eta legeria osagarria

Epaimahaiak ahalmena du gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesuaren garapen egokirako beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den gaian.

Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena; 2/2015

Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

HAMAHIRUGARRENA.- Deialdiaren inpugnazioa.

Interesdunek inpugnatu egin ditzakete deialdia, haren oinarriak eta haien ondoriozko eta epaimahaiaren jardunbidearen ondoriozko ekintza administratiboak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriak 1ekoa, dioen kasuetan eta moduan.

Tolosan, 2025eko martxoaren 24an.

GAITEGIA

- 1.- Switchen kudeaketa eta egituratze logikoa
- 2.- Sareko gailuen identifikazioa eta erabilera aurreratua
- 3.- IPv4 eta IPv6
- 4.- Segurtasun perimetrala
- 5.- Erabiltzaile eta aplikazio mailako segurtasuna. Inplementazioa eta praktika egokiak.
- 6.- Segurtasun Eskema nazionala
- 7.- IZENPEren zerbitzuak: sinadura-tresnak, sinadura zerbitzuen plataforma, izenpeen karpeta, argitalpenaren ziurtasuna, komunikazio ziurtatua, ziurtagirien ostatua
- 8.- Linux sistema eragilearen oinarrizko kontzeptuak
- 9.- Linux sistema eragilearen kudeaketarako linea bidezko komandoak.
- 10.- Windows sistema eragilearen oinarrizko kontzeptuak.
- 11.- Windows sistema eragilearen kudeaketarako linea bidezko komandoak.
- 12.- Zerbitzarien birtualizazio sistemak